

KULTURA-CULTURA / TURISMOA-TURISMO

Sagardun Partzuergoak "Sagardoaren Lurralde" marka berria sortu du euskal sagardoaren kulturari loturiko eskaintza turistikoa sustatzeko.

SAGARDOAREN LURRALDEA - 13/06/2012 - 16:02

Sin comentarios



Sagardun Partzuergoak "Sagardoaren Lurralde" marka berria aurkeztu du gaur. Bere produktu nagusia "Sagardoa eta itsasoa" esperientzia turistikoa izango da eta helburu nagusia, **euskal sagardoaren kulturarekin loturiko eskaintza turistikoa sustatzea**.

Gaur goizean **Donostiako Aquarium**-ean ospatu den aurkezpen ekitaldian, **Sagardun**-eko Lehendakaria den **Andoni Gartzia**, **Vicente Zaragüeta Gipuzkoako Ozeanografia Elkarteko** Lehendakaria eta **Xabier Agote Albalako** Lehendakariarekin batera, marka berri honek "euskal sagardoaren kulturarekin erlazionaturiko eskaintza turistikoa bildu eta sustatuko duela" adierazi du.



Sagardoaren Lurraldeak sagardoaren kultura, sagardotegi, sagarra, etab...etatik abiatuta bere eskaintza egituratzen du. Eraberean, berezko bizimodu, sinesmenak, historia, errituak, festak, herrialdeak, mendiak, hondartzak, museoak, etab... dituen eskualde jakin bati berezko esanahiak ezartzen dizkio. Beraz, esperientzia paregabea eta gogoangarria eskaintzen duen eta **munduan bakarra den kultur eskualdea da** "Sagardoaren Lurralde".



Internet-ak turismoaren sektorean gaur egun duen garrantzia ikusita, Sagardunek **www.sagardoarenlurralde.com** webgunea sortu du eta orrialde honetatik, esperientzia turistiko ezberdinak erreserbatu, Euskal Herriko sagardotegi guztiak bilatu eta **sagardoa on-line** erosi ahal izateko aukera eskaintzen du.

Eraberean, "Sagardoa eta itsasoa" esperientzia turistiko berria auzeratu da, bisitariei sagardoak

aintzinako itsas bidaia luzeetan eskorbutoa gaitzari aurre egiteko izan zuen garrantzia ezagutara emango diolarik. Esperientzia berri honekin bisitariak Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa (Astigarraga), Aquarium-a (Donostia) edo Ondartxo (Pasaia) bezalako museoak bisitatzeko, itsasontzian ibilaldi gidatua egiteko eta sagardotegiko bazkari batean gaiarekin lotutako gastronomiaz gozatzeko aukera izango du.

Tags: Andoni Gartzia, Aquarium Donostia-San Sebastian, cultura de la sidra, la sidra y el mar, marca turística, Ondartxo, Presentación, Sagardoaren Lurralde, Sagardoetxea, Sagardun, Vicente Zaragüeta, Xabier Agote

Anterior post

Presentación de la nueva oferta turística de Sagardun el 13 de junio en el Aquarium de Donostia.Sagardunen eskaintza turistiko berriaren aurkezpena ekainaren 13an Donostiako Aquarium-ean.

Siguiente post

Sagardoaren Lurralde, el territorio de la sidraSagardoaren Lurralde

Sagardoaren Lurralde



Kale Nagusia 48
20115 Astigarraga
t: 00 34 943 550 575
f: 00 34 943 559 575
info@sagardoarenlurralde.com
www.sagardoarenlurralde.com

[RSS Feed](#)
[Twitter](#)
[Facebook](#)

Buscar / Bilatu

Categorías

[Azokak-Ferías](#)
[Besteak-Otros](#)
[Ekitaldiak-Eventos](#)
[Esperientziak-Experiencias](#)
[Formazioa-Formación](#)
[Gastronomia-Gastronomía](#)
[Historia-Historia](#)
[Kultura-Cultura](#)
[Lehiaketak-Concursos](#)
[Museos-Museoak](#)
[Sagarra-Manzana](#)
[Sagastia-Manzana](#)
[Sidra-Sagardoa](#)
[Sidrerías-Sagardotegiak](#)
[Turismoa-Turismo](#)

Post Recientes



Sagardoaren munduko bitxikeriak: Maria Josefa de Larramendi, gizonen munduko emakume asaldatzailea.



Oiartzungo XXIV. Sagardo Eguna, maiatzaren 25ean.



Etorkizuneko sagardoaren haztegi handia sortu dute Billabonan.



"Petri" sagardoaren kortxo zerbitzaile berria.

Tu comentario / Zure komentarioa

Nombre *requerido*

Email *requerido*

Web

Enviar



Astarbe sagardotegiak 450 urte bete ditu.

Comentarios recientes

Sagardoaren Lurralde en "Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

Sagardoaren Lurralde en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.

Xabier en Lezon Sagardo Eguna ospatuko da larunbat honetan.

Xabier en "Baserri munduko memoria" sagastiko lan ezberdinen eskutik Sagardoetxean.

Goretti en "Sagastiak loretan" ARGAZKI LEHIAKETA Facebook-en.